

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5438

486/2025 EBAZPENA, azaroaren 27koa, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Larrialdietako gainbegiralea izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

356/2025 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Larrialdietako gainbegiralearen lanpostu bat izendapen askez hornitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Natalia Suárez Díez andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Larrialdietako gainbegirale izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hirugarren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Natalia Suárez Díez andrea Larrialdietako gainbegirale izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.— Izendapen honek 2025eko abenduaren 1ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua hornitzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.— Interesdunari eta Debagoieneko ESIko eta Donostialdeko ESIko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arrasate, 2025eko azaroaren 27a.

Debagoieneko ESIko zuzendari-gerentea,
CARLOS BARRUSO BARES.